



T-2	1. Ondoko prozesuak etengabe gertatzen ari dira nukleoaren barruan, bat izan ezik:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- DNAREN erreplikazioa b- DNAREN konponketa c- DNAREN transkripzioa d- Intronen eliminazioa 				
T-2	2. Nukleoaren proteinak sintetizatzen dira...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Nukleoan bertan b- Nukleoloan c- Gune perinuklearrean d- Zitoplasman 				
T-2	3. Kromosoma eukariotikoari buruz...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Bi kromatidaz osatuta dago interfasean eta 4 kromatidaz zelula mitosian sartzen denean b- Gene kopurua oso aldakorra da kromosoma espezifikoarenean c- DNAREN sekuentzia gehiena adierazgarria da d- Erreplikaziorako hasiera-gune bakarra dago zentromeroaren ondoan kokatuta 				
T-2	4. Kromatinari dagokionez...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Zuntz nukleosomikoa eukromatinari dagokion egitura da b- DNAREN 30 nm-ko zuntza heterokromatinari dagokion egitura da c- Telomero eta zentromeroetan heterokromatina dago; kromosomaren beste eremuak ordea, eukromatinikoak dira d- Guztiak TXARTO daude 				
T-2	5. Nukleosomaren antolaketari dagokionez...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Nukleosomak handiagoak dira heterokromatina eremuetan b- Beste histonekin batera H1 histona nukleosomaren oinarritzko osagaia da c- Histonen buztanen ezaugarri molekularrek eragin dezakete gene espresioa d- Histonen buztanek DNA sekuentzia espezifikokoak ezagutzen dituzte 				
T-2	6. Aukeratu adierazpen egokia nukleoloari buruz...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- RNA erribosomiko guztia nukleoloan ekoizten da b- RNA erribosomiko sintetizatu berriak nukleoloan elkartzen dira proteinekin azpiunitate erribosomiko berriak sortzeko c- Nukleoloan azpiunitate erribosomikoak elkartzen dira erribosoma helduak sortzeko d- Nukleoloa mintz proteiko batez mugatuta dago 				



T-2	7. Antolatzaile nukleolarra...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Ezinbestekoa da nukleoloa sortzeko, baina gero desagertzen da b- Bi eremu ezberdinez osatuta dago: eremu fibrilarra eta eremu pikortsua c- Nukleo bakoitzean antolatzaile bakarra dago d- Gene erribosomikoak egitura horretan kokatzen dira 				
T-2	8. Estaldura nuklearra...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Bi mintzez osatuta dago b- Mitosian desagertzen da c- Erretikulu endoplasmaticoarekin zuzenean komunikatuta dago d- Guztiak ondo daude 				
T-2	9. Xafla fibrotsua zuzenean inplikaturik dago...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Nukleo-zitoplasmaren arteko molekulen trukean b- Estaldura nuklearraren eraketan c- Heterokromatinaren eraketan d- Nukleoloaren biogenesisian 				
T-2	10. Poro nuklearraren egiturari dagokionez...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Alde zitoplasmikoa eta nukleoplasmikoa desberdinak dira b- Estaldura nuklearraren mintz nukleoplasmikoa ainguratuta dago bakarrik c- Zortzi proteinez osatuta dago d- Zortzi kanal proteikoz osatuta dago 				
T-2	11. Nukleotik zitoplasmara esportatzen dira...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- RNA mezularia heldu gabe b- RNA mezularia proteinekin elkartuta c- Erribosoma helduak d- Guztiak TXARTO daude 				
T-2	12. Zein da Ran-GTP proteinaren jardura proteinen inportazio nuklearrean?	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Nukleora inportatzen proteinaren hartzaile moduan jokatzen du b- Proteinaren inportaziorako beharrezkoa den hartzailearen birziklapenaz arduratzen da c- GTParen hidrolisia egin ondoren inportatua izango den proteina fosforilatzen du d- Poroaren proteina espezifikoak fosforilatzen ditu 				